



Ikertzaile agurgarriak:

Ikerkuntza Gizartean Zabaltzeko Zuzendaritzatik (Transferentzia eta Nazioartekotze Errektoreordetza) **Zientzia Zirkularra** programan parte hartzera gonbidatu nahi zaitugu, zeina **Ikertzaileen Europako Gauaren** jardura osagarria baita.

Zientzia Zirkularraren bidez, gure gizarteari ezagutza transferitzea eta Unibertsitatean sortzen diren azterlanak eta ikerketak komunikatzea sustatu nahi da. Bere helburu nagusia zientzia eta teknologia Euskal Autonomia Erkidegoko Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikastetxeetako ikasleei hurbiltzea da. Zientzia Zirkularraren programan, gure unibertsitateko ikertzaileak eta irakasleak ikastetxeetara joaten dira dibulgazio hitzaldiak edo tailerrak ematera.

Programa honen jatorria Ikertzaileen Europako Gauean dago, G9 Taldea osatzen duten unibertsitateen arteko proiektu batean, kultura zientifikoko unitateen bidez, Horizonte Europa programaren esparruan emana. Zientzia Zirkularraren programa **G9- SCIENCE4ALL Europako proiektuaren** testuinguruan antolatzen da. Europar Batasunak mundu osoko gizarte-arazo handietarako konponbideak planteatzeko asmoz abian jarri dituen ikerketa eta berrikuntzako bost misioetan zentratutako ekimena da. Misio horiek 1-Minbizia, 2-Klima aldaketara egokitzea (eraldaketa soziala barne), 3-Ura eta ozeanoak, 4-Hiri adimendun eta klimatikoki neutroak eta 5-Lurzoruaren eta elikagaien osasunari buruzkoak dira. Horiek guztiek lagunduko dute betetzen Europako Itun Berdeko helburuak, Minbiziaren aurkako Borrokarako Europako Planekoak eta Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH).

Parte hartzeko jarraibideak eta baldintzak

Zientzia zirkularrean parte hartu ahal izango dute EHUko Irakasle-ikertzaileek eta doktorego aurreko eta ondoko ikertzaileek.

Zientzia zirkularrean parte hartzeko, bidali zure hitzaldi- edo tailer-proposamena, **INPRIMAKIAREN** bidez:

<https://www.ikertzaileengaua-ehu.org/zientzia-zirkularra-proposamenak-2025/>

OHARRA: Formularioan idazten duzuen hitzaldi/tailerraren deskribapena, webgunean ikusgai egongo da eta ikastetxeentzat eskuragarri, proposamena onartua izatekotan.

Tailerrak pertsona batek edo talde batek eman ditzake, baina ezin izango dira 4 kide/tailer baino gehiago izan. Pertsona bat baino gehiago dituzten tailerren kasuan, taldeko pertsona guztien datuak bete behar dira eskabide-inprimakian.

Proposamenak bidaltzeko azken eguna: **irailaren 26a, goizeko 10:00etan.**

Eskaerak jaso ondoren, ekimenarekiko egokitasuna baloratuko da, proiektuaren bost misioetan hobekien egokitzen diren proposamenei lehentasuna emanez eta horien onarpena posta elektronikoz jakinaraziko da. Dibulgazio-hitzaldien eta tailerren zerrenda Ikertzaileen Europako Gauaren webgunean erakutsiko da:

<https://www.ikertzaileengaua-ehu.org/hasiera/>

Orrialde horretan egongo da ikusgai 2025-2026 ikasturterako eskainitako hitzaldien zerrenda, urriaren 1etik aurrera, eta ikastetxeek hitzaldi/tailer bat eskatu ahal izango dute 2026ko apirilaren 4ra arte. Ikertzaileak beren hitzaldi/tailerretan parte hartu nahi duten ikastetxeetara joan ahal izango dira 2026ko maiatzaren 15era arte.

Parte hartzen duten ikertzaileak gehienez hiru tailer edo hitzaldi eman ahal izango dute, ikastetxe batean edo gehiagotan. Ikerkuntza Gizartean Zabaltzeko Zuzendaritzak jasoko ditu ikastetxeen eskaerak, eta ikertzaileari helaraziko dio bere hitzaldiaren/tailerraren eskaera. Eskabide-inprimakia jaso ondoren, **ikertzaileak erabakiko du, bere eskuragarritasunaren eta agendaren arabera, hitzaldiaren/tailerraren eguna eta ordua, zentroarekin adostuta.**

Ikerkuntza Gizartean Zabaltzeko Zuzendaritzak bere gain hartuko ditu jardueraren ondoriozko garraio- eta mantenu-gastuak. Horretarako, jarduera egin ondoren, dietak IZAPIDE aplikazioaren bidez ordaintzea eskatu beharko da, Ikerkuntza Gizartean Zabaltzeko Zuzendaritzatik jasotzen diren argibideak jarraituz. Jatorrizko egiaztagiria (fakturak eta tiketak) Ikerkuntza Gizartean Zabaltzeko Zuzendaritzari (Transferentzia eta Nazioartekotze Errektoreordetza) bidali beharko zaizkio posta arruntez. Zientzia Zirkularrean parte hartzen dutenek 50 euroko ordainsaria jasoko dute emandako hitzaldi/tailer bakoitzeko, I. Eranskinaren arabera, gehienez ere 150 euro pertsonako. Tailer bat hainbat pertsonako talde batek (gehienez 4) ematen badu, horietako bakoitzak 50 euroko ordainsaria jasoko du, gehienez ere 150 euro pertsonako.

Edozein zalantza edo kontsulta izanez gero, hurrengo helbide elektroniko zientzia-astea@ehu.eus eta telefono hauetan erantzungo dizugu:

94 6012433 (Miguel)
94 6013243 (Carles)
94 6015235 (Nagore)

Adeitasunez,

Ikerkuntza Gizartean Zabaltzeko Zuzendaritza

Transferentzia eta Nazioartekotze Errektoreordetza